

Oroigarriak

–Begira, John, oroigarri pila bat erosi ditut. Lagunentzat eskumuturreko hauek erosi ditut.

–Oso politak dira; lauburua asko gustatuko zaie, seguru.

–Anaiarentzat iman itsusi hau hartu dut, iman itsusien bilduma egiten du-eta.

–Ai, zure anaia hori, zer bitxia den! Eta amarentzat?

–Amarentzat Irulegiko eskuaren lepokoa erosi dut. Irulegiko eskua pieza arkeologiko bat da, eta inskripzioa "euskara zaharrear" idatzita dago.

–Hara! Asko gustatuko zaio!

–Ahizpa txikiarentzat sokadun katilu zuri-urdin bat hartu dut, parrandan ibiltzeko ondo etorriko zaio.

–Bai, horrela ez ditu plastikozko edalontziak erabiliko! Oso egokia, bai!

–Oierrentzat autoan zintzilikatzeke espartin txiki hauek hartu ditut.

–Oso graziosoak dira, gustatuko zaizkio! Baina zenbat gauza erosi dituzun! Eta txapel beltz hori norentzat da?

–Aitarentzat. Askotan erabiltzen ditu txanoak. Eta izebarentzat liburu hau hartu dut; euskaraz hitz egiten ikasteko da, asko gustatzen zaizkio hizkuntzak.

–Besterik ez, ezta?

–Bueno, lankideentzat gozoki hauek erosi ditut; kutxa txiki hauek oso politak dira.

–Ai, neska, ez dakit dena kabituko zaigun maletan!